

Joxemari Carrere

IPUIN KONTALARIA

## Sherezade

**I**largo zaharrak mundua argitzen du. Laranja usaina zabaltzen du haize hotzak. Gauak gertaera kitzikagarria iragartzen du. Jende andana bildu da gau liluragarrian. Prozesioa hastera doa. Guztien aurrean bi lagunek irudi santua altxatzen dute. Argazki handi bat da. Argazkian emakume desiragarriaren irudia. Sherezade da. Jarraitzaileek prozesioari ekiten diote kantari, ilargiaren eta kandelen argipean. Kontalariak dira, hamaika zoko ezberdinetatik heldutakoak. Eta bere jainkosari oles egitera etorri dira: “Hitzaren erregina/ ipuinen señoira/ zure argitasuna zabaldu/ maite zaituen herrira. Nire poza eta zoriona/ Sherezaderen adiskidetasuna”.

Haxe gertatu zen Valentziako Llirian. Kontalarien VI. Topaketetan. Kristo guztiak bere santu debozionekoa izaki, kontalariok zergatik ez? Eta kontalarien deboziorako zein egokiagoa Sherezade bera baino. Dena dela, gauza gehiago gertatu ziren Llirian. Azken edizio hau heldu da ofizioan zabaldu den kezka baten erdian, alegia, profesionaltasunarena. Honen gainean hamaika iritzi eta ikuspuntu ezberdin zebilen ahoz aho, eta biltzar honetan mahai gainean jarri nahi izan da gaia. Horrekin batera, azken boladan kontalari elkarte ezberdinak



DANI BLANCO

sortzen ari dira beste horrenbeste lurraldetan. Honi gehitu behar diogu Europa mailan FEST (*Federation for European Storytelling*) kontalarien elkarte martxan jarri dela, 2009 urtean bigarren biltzarra egin duelarik. Ipuin kontaketa ofizioa zehazteko elkarretaratzeak gero eta gehiago ematen ari dira, bai alde artistikoari dagokionez, zein lan baldintzen kezka pean. Prozesu hauek, korapilatsuak eta zailak izanik ere, erakusten dute arte eszenikoen arlo honek bizia baduela, kontatzeko asko duela. Lliriako biltzarrean era guztietako iritziak azaleratu ziren; dena dela, adostasun osoa egon zen ipuin kontaketa jardunak izan ohi duen irudi simple eta gutxietsia aldatzeko orduan, benetako jardun artistiko serioa eta garrantzitsua delarik aldarrikatuz.

Agian topaketa hauetatik atera genezakeen ondorio nagusienetako bat izan daiteke kontalaritza heldutasun bidetik ari dela, bai jardun artistikoari dagokionez zein antolamenduan. Gero eta kalitate handiagoko lanak ikusten dira, ikerketak ere areagotu dira, baina beharbada, inportanteena izango da haurren zaintzaile sinpatikoak izatearen irudia apurtzen hasi garela. Eta gure Sherezade bidelagun izango dugu. ■

«  
Lliriako biltzarrean era guztietako iritziak azaleratu ziren; dena den, adostasun osoa egon zen ipuin kontaketa jardunak izan ohi duen irudi simple eta gutxietsia aldatzeko orduan  
»

## TXANDAN

Edn Zelaieta



Erdara dut ama-hizkuntza: amaren bularretan nengola, gaztelania ezetsua aditzen nuen, hain beharrezko eta hain gozo hartzen nuen esnearekin batean. Bitxia da, halarik ere: ez ama, ez aita, ez ziren gaztelaniaz mintzatu txikitan. Amak, bere arbasoek bezala, galizieraz erran zituen lehen hitzak. Aitak, antzinako ahaideei segika, euskaraz bota zituen bereak.

Parisen ezagutu zuten elkar aitak eta amak, 1960ko hamarkadan, biak frantsesez mintzo zirela. Hantxe jaien nik baino hamar urte gehiago dituen anaia, Berako aitona-amonekin hiru urte izan arte euskara hutsean

## Autobiografia

hezitakoa. Egun, frantsesez eta gaztelaniaz mintzo den euskaldun zaharra.

Inoiz pentsatu dut xelebrea dela

hizkuntzen afera hau, nahiko nukeela zehaztu zenbateko eragina izan duen honek guztiak nire bizian: pertsona bera izango nintzateke hizkuntza bakarreko familian sortu izatera? Zer sentituko luke Avilako batek bere ama-hizkuntza eta bere gurasoenak hiru diferente balira?

Aitor dut, gauza bitxia izanagatik ere: ama-hizkuntza ez dudana euskara maite dut. Horregatik izanen da, agian, unibertsitatean euskaraz irakastearena, euskaraz idaztearena, edota, bakarrik nagoela, euskaraz pentsatzearena. ■